

Irudi iragartzaileak

Joxean AGIRRE

Badaude bizitza bat argitzen duten irudiak, ibilbidearen iragarpen direnak. Arginzoniz, The World's 50 Best zerrendan bigarren postura igo berri dena, amonari begira egoten zen umetan beheko sua hauspotzen ari zenean. Gerora Bittorrek Etxebarri jatetxean parrillaren iraultza jarri zuen martxan.

Andoni Luis Adurizi, zerrenda horretako beste abonatu bati, arrautza bat botatzen zion gaztetxoa zela amak patatak ilarrekin jartzen zizkionean. Arrautza egosi itsusi horren testurarekin obsesionatuta ibili zen gero eta hiru orduz 60 gradutan egosiz gero, arrautzak bere amak jartzen zionaren eitea zuela erabaki zuen.

Amurizaren “Enaz banaz” liburuan gero bertsolari izango zen ume bat ageri da, eskolatik bueltan behizain, zuhaitzik handienera igo eta ahots goraz bertso jarriak kantatzen, munduak edo auzokoek jakin zezaten han bazela bertsolari bat.

Imanol Lazkano umea etxe aurreko arto sailari begira egoten zen eta egunen batean berak, bertsotan hasten zenean, artaburu ordez, entzuleen buruak ikusiko zituela pentsatzen zuen.

Saramago umea, beste adibide bat jar-tzearren, eskolan azken lekuan jarri zuen maisuak, atea zaintzen, baina diktatua egiteko eguna iritsi zenean, akatsik gabeko lan bat entregatu zion eta lehen postura pasatu zuen. Nobelak ere ez zion sari hark adinako pozik eman.

Orain bi aste “Errautsak hauspotzen”, Urola Erdiko trikitiaren ondarea biltzen duen lana aurkeztu zuten Azpeitian eta Anjel Larrañaga umetako irudi eder batekin gogoratu nintzen: igande arratsalde auzoko etxe batera joan eta “erromerietara” egiten zuten jolas. Anjelek eskuak airean astinduz panderoa jotzen zuen panderorik gabe eta kantatu. Beste batek behatzak saihesten kontra mugituz soinua jotzen zuen soinurik gabe eta beste guztiek dantzan egiten zuten.

Eta politikoez ba ote dute haurtzaroko irudi iragartzailerik? Seguru baietz, baina buruan ezabatu ezinik daramaten irudia zifrez eta portzentaiz betetako hauteskunde gaueko pantailarena izango da. •

Mudantza

Maddi AIESTARAN
IPARRAGIRRE

Manta oinekin nola zimurtzen dudan ikusita, geldi-geldi egongo naizela erabaki dut, pausorik egin gabe. Atzamarrekin, marrazki bati goiko ezkerreko erpinetik tira egin diot suabe. Begiratu egin diot hiru-lau segundoz, eta atzealdeko zela desitsatsi diot pixkanaka-pixkanaka, kontuz-kontuz. Ondoko bi argazkiak kendu dizkiot paretari, eta marrazkiaren gainean jarri ditut. Gauza bera egin dut noizbait nonbaitetik hartutako poster itxurako paper zelodun gehiagorekin. Oinpeko mantaren zimurak sumatu ditut ugaritzen, nire nostalgiatxoa no-

la. Eta mesanotxean, joan dira marrazkiak, pegatinak, argazkiak, paperak pilatzen, eta zela erabiliaren pilotatxoa handitzen, paretari koloreak erantzi ahala. Pila hori karpetaratu eta salto egin dut ohetik. Armairuaren gainaldera iristeko lain eskalatu dut. Iritsi naiz. Heldu diet koadro zaharrei eta nire oinekin batera jaitsi ditut lurrera. Itsusiak dira, gero. Oheko zimurrei arreta handiegirik jarri gabe, tentetu naiz berri ere eta ipini ditut koadroak lehen kendu nituenean zeuden bezala. Eta listo. Begiratu diet ate ondoko poltsei. Begiratu diot armairu hutsari. Zelo pilotatxoa zakarretara bota dut. Begiratu

diot paretari. Eta begiratzea iruditu zait agur esateko modu oso diskretu baina polit bat.

Ekainak gauzak bukatzen ditu askorentzat. Ikasturteak, masterrak, lan kontratuak, errutinak, alokairuak, bazkidetzak, agendak, ofertak. Etxe hone-takoak bukatu zaizkigu guri. Eta bukatzeak penatxoa ematen du askotan; ez beti, baina. Esaten denez, bukaerek hasiera omen dakarte ia beti. Baina niri ez baitzait gustatzen gauzak azkarregi egitea, batzuetan on egiten dit gauzak bukatu eta besterik hasi bitartean geldi-geldi tarte bat egoteak. Poltsei, armairuei eta paretei begira. •